

Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak hauxe du bere egiteko nagusia: gizarte pluralago eta demokratikoagoa lortzea, indarkeriarik gabekoa, bere problema eta desadostasunak konpontzeko asmoz elkarriketaz baliatzen dena, elkarrenganako errespetua oinarri hartuta.

Begiratu biktima guztienganako elkartasunean eta haiek egitarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidean finkatuta, bake kultura sustatu nahi dugu, bizikidetzaren eta adiskidetzaren indartzeko prozesuak

eta pertsona guztien giza eskubideen errespetua.

Urtero gai horien inguruko jardunaldiak antolatzearen asmoa dugu, bake kultura eta bizikidetzaren kontziliazioa sendotzeko baliabide izan daitezkeen. 2017ko hau bigarren edizioa da.

Jardunaldi hauen bitartez, gogoeta bultzatu nahi dugu, baita pertsonen duintasuna errespetatu behar diren aldeko mezua ere. Aurten, arteak hainbat adierazpideri esker eskaintzen digu indarraz baliatuz egiten dugua.

Bestetik, terrorismoak eta gainerako indarkeriek gure herrian eragindako sufrimendua dela eta bizikidetzaren onbidetzeko premia ikusirik ere, haratago ere goratu nahi dugu begirada, eta nazioartean Giza Eskubideak errespetatu daitezela defendatu.

DATAK

2017ko MARTXOAREN 23tik APIRILAREN 6ra

Jardunaldiek lau ekitaldi izanen dituzte: hitzaldi edo mahai-inguruak izanen dira haietako bi, literaturarekin eta elkartasunarekin lotuak, eta beste bi antzerkiarekin eta zinemarekin lotuak.

Martxoaren 23a, osteguna. Zine Foruma. “Mariposas en el Hierro”. Bertha Gaztelumendi.

Martxoaren 30a, osteguna. Mahai-ingurua, Gabriela Ybarra, Luis Garde eta Ion Arretxe idazleekin.

Apirilaren 1a, larunbata. Antzerki eta Musika emanaldia hiru biktimari buruz: “Sin Adiós – Adiorik gabe”.

Apirilaren 6a, osteguna. Hitzaldia eta bideotxata: “Buenos días desde el cielo de Alepo”. Sara Aldaba eta Georges Sabe anaia marista urdina.

Sarrera dohainik eta libre, aretoa bete arte. Martxoaren 14tik aurrera har daitezke sarrerak takillan. 4 sarrera gehienez pertsonako.

TOKIA

Baluarte. Iruña.

ORDUA

Ekitaldi guztiak **19:30ean** izanen dira.

23 MARTXOA OSTEGUNA

ZINE FORUMA “MARIPOSAS EN EL HIERRO”

ONDOREN, SOLASALDIA BERTHA GAZTELUMENDI ZUZENDARIAREKIN.

“Mariposas en el hierro” filmak gure herriko hainbat indarkeria motaren biktima diren testigantzak biltzen ditu, baina hemendik kanpokoak dituen hitzak ere biltzen ditu. Emakume hauek guztiek indarkeria gainditu nahi dute, bakea eta justizia nagusi diren etorkizuna eraiki. Esperientzia, ekimen, jarrera eta desirak oparitzen dizkigute, bestelako errealitatea sortzeko: inolako indarkeriarik gabeko bizimodu duina, bake iraunkorreko etorkizuna, bidaia bat sufrimendutik esperantzara.

30 MARTXOA OSTEGUNA

MAHAI-INGURUA “LA DEFENSA DE LAS VÍCTIMAS Y LA PAZ DESDE LA LITERATURA”

GABRIELA YBARRA, LUIS GARDE ETA ION ARRETXE

Arteen bitartez memoriari eta biktimei begiratzerakoan, literaturak eginkizun nabarmena du.

Hiru idazle hauek beren azken liburuez mintzatuko dira, beren esperientziak, nolako ekarpena egiten ahal dioten arteak eta literaturak giza eskubideen aldeko lanean.

Moderatzailea: Aingeru Epaltza.

6 APIRILA OSTEGUNA

HITZALDIA ETA BIDEOTXATA

“BUENOS DÍAS DESDE EL CIELO DE ALEPO”

SARA ALDABA ETA GEORGES SABE

1 APIRILA LARUNBATA

ANTZERKIA ETA MUSIKA

“SIN ADIÓS - ADIORIK GABE”

Muntaia artistikoa, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren hiru biktimaren bizitza duena muin: **Juan Manuel García Cordero, Mikel Zabalza Garate eta Francisco Javier Gómez Elósegui.**

Biktimekiko elkartasunaz eta indarkeriarik gabeko gizartearen eta bake kulturaren aldeko apustuaz gainera, hiru biktima horien bizitza hartuko dugu ardatz, ez heriotza, gizarte adiskidetzaren, bidezkoagoa eta etikoagoa eraikitzeko ekarpen gisa.

Zuzendariak: Mireia Gabilondo eta Teresa Calo.

Sara Aldaba, garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako teknikaria, SED gobernuz kanpoko erakundean.

Georges Sabe anaia marista urdinak zuzenean hitz egiten digu Alepotik, Siriatic.

Zenbait gai jorratuko dituzte: elkartasuna gerretan, beren esperientzia, Siriako egoera eta gerran diren herriekiko elkartasunaren argi-itzalak.